

## OHIKO GALDERAK – COVID-19aren KRISI SANITARIOA

(06. 04.2020)

Alarma-egoera eta COVID-19aren krisi sanitarioa afektazio garrantzitsuak izaten ari da gure jardueraren egunerokotasunean. Zaila da oraindik ere neurtzea krisi honen handitasuna, Euskadin zein lan egiten dugun herrialdeetan. Horregatik ari gara saiatzen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziatik malgutasun-neurri berriak hartzen –dirulaguntza-araudiaren eta administrazio-prozedura erkidearen arabera, eta laguntzen dekretu arautzaileetan ezarritako baldintzei dagokienez–, COVID-19ak edo haren aurka borrokatzeko hartutako neurriek sortutako testuinguruak eraginpean hartutako proiektuei bideragarritasun albat handiena emateko helburuarekin.

Ondoren, larrialdi sanitarioa dela-eta sor daitezkeen zalantza arruntenei emandako erantzuna aurkituko duzu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEAK) finantzaturako proiektuak burutzen dituzten erakundeentzat.

### 1. Alarma-egoerarekin etenda dago nire proiektua?

Ez. Egikaritzapen-fasean dauden proiektu eta ekimenek ekintzak garatzen jarrai dezakete, alarma-egoerak hartutako neurriek mugatzen badituzte ere. Egikaritzapenari lotutako gastuak onartzen dira aldi horretan, proiektuari atxikitako soldatak barnean hartuta.

### 2. Nola hartzen ditu eraginpean alarma-egoerak nire proiektuaren egikaritzapen-epetak?

Alarma-egoera amaitutakoan:

- Ekintzak garatzen jarraitu duten proiektu eta ekimenek –nahiz eta ekintza horiek alarma-egoerak hartutako neurriek mugatu dituzten– alarma-egoera dekretatu aurretik zuten amaiera-data bera izango dute.
- Jardueren erabateko etenaldia gauzatzea baimendu zaien proiektu edo ekimenek (ikus 5. galdera) etenda egon den aldiaren berdina den luzapena izango dute amaiera-datari dagokionez. Hau da, etenaldia gorabehera, hasieran aurreikusitako egiazko egikaritzapen-epeta bermatuko da (adibidez, 24 hilabete).

*Adibidez, proiektu bat 2021eko abenduaren 31n amaitzen bada eta jardueren erabateko etenaldian hilabete 1ez egon bada (maiatzaren 26tik apirilaren 26ra arte), 2022ko urtarrilaren 31n amaituko da.*

- Jardueren etenaldi partziala gauzatzea baimendu zaien proiektu edo ekimenek (ikus 6. galdera) alarma-egoera dekretatu aurretik zuten amaiera-data bera izango dute. Dena den, epe jakin bat izan ahalko dute etendako ekintzak berrasteko, legezko egikaritzapen-epetik kanpo bada ere.

### 3. Baliabide ekonomiko gehiago izan ditzaket krisi sanitario honi aurre egiteko?

Ez. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da gehitu. Haatik, partiden arteko aldaketa bat izan dezake ekimenak alarma-egoeraren ondorioz. Aldaketa horrek ez du baimenik beharko deialdi bakoitzaren araudiak ahalbidetzen duen funtsezkoak ez diren desbideratzeen mugak gainditzen ez diren kasuetan.

### 4. Nahitaezkoa da jardueren etenaldia eskatzea?

Ez. Hori ez da nahitaezko neurri bat. Testuinguruaren baldintzen eta ekimen bakoitzari aplikatu ahal zaion araudiaren arabera aztertu beharko du erakundeak etenaldi bat eskatzeko edo ez eskatzeko egokitasuna. Etenaldia eskatzen ez bada, dirulaguntza horri aplikatzekoa zaion araudiak ezartzen dituenak izango dira esku-hartzearen iraunaldi-epeak.

### 5. Zer da jardueren erabateko etenaldia?

COVID-19aren krisiak osorik hartzen duenean eraginpean proiektu baten egikaritzapena eta ezin bada ezein jarduera burutu, egikaritzapenaren erabateko etenaldia eskatu ahalko du erakundeak. Proiektuaren etenaldian ezin izango zaio ezein gastu egotzi dirulaguntzari, ezta soldatei eta bulegoetako gastu arruntei dagokiena ere.

### 6. Zer da jardueren etenaldi partziala?

Alarma-egoera dela-eta jarduera jakin batzuk (hala nola biltzar bat edo ikastetxeetako jarduerak) bertan behera gelditu badira baina proiektuko gainerako jarduerak une bakoitzean ezartzen diren salbuespenezko neurriei egokituta burutzen ari badira gertatzen dena. Kasu horietan, alarma-egoerak eraginpean hartutako jardueren etenaldi partziala eskatu ahalko du erakundeak eta aldi horretan egikaritzen ari diren ekintzei lotutako gastuen egozpena onartuko da, soldatak barne.

Neurri hori egokia izan liteke etendako jarduerak alarma-egoera amaitu eta berehala burutu ezin diren proiektuetarako, edo ziur denean jarduera horiek ezin izango direla egin proiektua eta haren luzapenak legez amaitzen diren arte.

*Adibide bat jartzearren: Euskadiko hezkuntza-proiektu batek, zeinaren gehieneko egikaritzapen-epaia 2020ko maitzaren 30a den (24 hilabeteko gehieneko iraupena agortuta) eta ikastetxeetan jarduera apirilean egitea aurreikusita duen, zailtasunak izan ditzake, behin alarma-egoera amaituta, jarduera horiek burutzeko. Jarduera etenda geratzen bada, egikaritzeko legezko epeak gaindituta ere berraktibatu ahalko litzateke (adibidez, 2020ko iraila).*

### 7. Krisi sanitarioa eraginpean hartzen ari da Hegoko herrialde/eskualde batean burutzen ari den proiektua, baina oraindik ezin da zehaztu krisiak egikaritzapenean izango duen inpaktua. Komenigarria da jardueren etenaldia eskatzea?

Jarduera puntualen etenaldia ezin daiteke izan neurri egoki bat egikaritzapen-epe nahikoa duten eta egikaritzapen-herrialdean kronograma krisi sanitarioaren errealitatera berrantolatu dezaketen proiektuetarako.

*Adibide bat jartzearren: Hegoko herrialde batean garatzen ari den eta aurretik 20 hilabeteko egikaritzapena duen proiektu batek behabada ez du jardueren etenaldia zertan eskatu. Krisi-egoera gaitutakoan, jardueren kronograma berrantolatu eta, beharrezkoa izanez gero, luzapen bat eska dezake.*

**8. Behin Euskadin alarma-egoera amaitutakoan, jardueren etenaldia mantendu ahalko da COVID-19aren krisi sanitarioa ekimenaren egikaritzapen-lekuan mantentzen bada?**

Bai. Euskadin ezarritako alarma-egoeraren iraupena baino aldi luzeago baterako mantendu ahalko da tokian toki etenaldia, betiere dagozkion agintariek egokitutako neurriak behar bezala justifikatzen badira. Etendako jardueren egikaritzapena egikaritzapen-lekuan hartutako larrialdi-neurriak altxatzen direnean hasiko da berriz.

**9. Nola eskatu behar dut jardueren etenaldia?**

Jardueren etenaldia tramitatzeko beharrezkoa izango da erakundeek Tramitaguneren bidez eskaera bat aurkeztea, zeinean etenda geratzen den edo diren jarduera/k adierazi beharko diren eta etenaldi horren arrazoa larrialdi sanitarioa dela justifikatu. Ez dago ezarritako formaturik eskaera hori egiteko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak aztertu eta, bidezko den kasuetan, ebazpen bat emango du, zeinaren arabera adierazitako jardueraren edo jardueren egikaritzapena onartuko den eta egikaritzapena etenaldi horren arrazoa amaitzean eta jarduera egitea posible denean erabakiko den.

**10. Etenaldi bat eskatu nahi badut, nahitaezkoa da COVID-19ak eragindako krisi sanitarioko egoeraren kudeaketarako alarma-egoera deklaratzeko duen matxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean dagoen bitartean egitea?**

Ez. Egungo konfinamendu-neurriak kontuan hartuz, alarma-egoera amaitu eta hurrengo egunetan egin ahalko da eskaera.

**11. Arazoak ditut Tramitagunerako sarbidearekin, posta elektronikoz bidali dezaket dokumentazioa?**

Ez. Tramitazio elektronikoa komunikazio-bide bakar gisa duten prozeduretan, dagokion bidetik iristen diren eskaerak soilik tramitatu ahalko dira.

IZENPE txartela izanez gero, onartutako beste edozein bitarteko elektronikoko bidez egin ahalko dira eskaerak.

Dena den, aurreko erantzunean adierazten denez, alarma-egoera amaitu ondorengo eskaerak egin daitezke.

## 12. Berehala har ditzaket neurriak COVID-19ari aurre egiteko proiektuaren markoan?

Bai. Gurekin lanean dabiltzan pertsonen segurtasun-baldintzak dira lehenengo gauza. Horregatik, COVID-19aren krisia eraginpean hartzen ari den arribideko proiektuetan/ekimenetan funtsezko aldaketak egin ahalko dira aldeztu aurreko baimenik gabe krisi sanitarioaren errealitatera egokitzeko. Betiere aldaketa horiek funtsezko aurrekontu-aldaketarik ez badakarte<sup>1</sup>, eta ez badira proiektuaren ekintza, helburu eta emaitza nagusien kaltetan egiten, hurrengo jarraipen-txostenean aztertu ahalko dira.

*Jar ditzagun adibide batzuk:*

- *Erosketa txikiak egitea maskarillak, eskularruak edo bestelako materialak erosteko jardueren egikaritzapenean segurtasun-baldintzak emateko.*
- *Tokiko bazkidearen langileentzat eta xede-biztanleriarentzat COVID-19aren prebentzio-neurriak ezagutzera emateko prestakuntza-ekintzak egitea.*
- *COVID-19ak eraginpean hartutako xede-biztanleriaren osasunari lotutako gastuak (botikak erostea eta abar) egitea.*
- *Hasiera batean formatu presentzialean aurreikusitako jarduerak (topaketak, prestakuntzak, komunikazio- eta intzidentzia-kanpainak, eta abar) formatu birtualetan burutzea.*
- *COVID-19ari dagokionez hartutako prebentzio-neurrien harira eta autohornitzeko gai ez diren bakartutako komunitateentzako elikagaien erosketak egitea.*
- *COVID-19ak eraginpean hartutako xede-biztanleriaren elikagai-segurtasunarekin lotutako erosketak (esaterako, haziak, eta nekazaritza eta abeltzaintzako inputak) egitea.*

## 13. Alarma-egoera Euskadin amaitu ondoren, proiektuari dagokionez funtsezkoak diren aldaketak (iraupenarekin, aurrekontuekin, emaitzekin eta abarrekin lotutakoak) eska ditzaket?

Bai. Alarma-egoera Euskadin amaitzean, litekeena da krisi sanitarioa une horretan indartsu eraginpean hartzen aritzea proiektuaren egikaritzapenaren jokaleku diren herriak/eskualdeak.

Erakundeak proiektuetarako funtsezko aldaketak eskatu ahalko ditu COVID-19aren eraginez bada egikaritzealdi osoan, eta GLEAK eskaera horiek arintzen saiatuko da. Kontuan izanda testuinguru bakoitzeko egoeraren inpaktua zehaztea une honetan zaila dela, proiektua

---

<sup>1</sup> Laguntza bakoitzaren indarreko araudiaren arabera. Helbide honetan eskuragarria: <http://www.elankidetza.euskadi.eus/x63-homev7/es/>

birformulatzeko premien argitasun handiagoa dagoenean gomendatzen dugu funtsezko aldatetako eskaera horiek egitea.

- 14. Krisi sanitarioaren aurrean, proiektua egikaritzen den herrialdeko gobernuak tokiko bazkideen instalazio, ondasun eta ekipamenduak konfiskatu ditu osasun-zerbitzuen zerbitzura jartzeko. Jarduerekin berriz hasteko behar diren ondasun horien gaineko kontrola noiz eta nola berreskuratuko den zalantzak eragiten dituen puntua da.**

Izan ere, lan egiten dugun herrialdeetako gobernuak subiranoak dira beren lurraldeetan krisi sanitarioari aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunak konfiskatzeko. Zirkunstantzia hori orokortu egin liteke testuinguru jakin batzuetan. Egoera horrek proiektuaren beharrezko birformulazioa inplika dezakeenez, erakundeak balioetsi egin beharko du planteatutako zein jokaleku (etenaldia, funtsezko aldateta...) zaion egokiena hasiera batean planteatutako helburu eta emaitzak lortzeko.

- 15. Zer gertatzen da alarma-egoerak eraginpean hartuta egindako gastuekin (txartelak erostea, guneak alokatzea...)?**

Jarduerak bertan behera utzi aurretik egin diren gastu guztiak aseguruaren edo enpresek aurreikusitako neurrien bidez berreskuratzeko ahalegina egin behar da (esaterako, hegazkin-txartelen kostua itzultzea baimentzen ari dira hegazkin-konpainia batzuk).

Gastu horiek inola ere berreskuratu ezin badira, behar bezala argitu beharko da hori dagokion jarraipen-txostenean, eta GLEAK kasu bakoitzean aztertuko du dirulaguntzarako egozpena onartzearen egokitasuna.

- 16. Jarraipen-txostena aurkez dezaket alarma-egoeraren aldirian?**

Bai. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bere ohiko prozedurarekin jarraituko du justifikazio-txostenak eta ordainketen tramitazioa berrikusteko garaian.

- 17. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak jarraipen-txosten bat egiteko eskatu dit aldi honetan. Dena den, ez daukat beharrezko informaziorik errekerimenduari erantzuteko. Zer egoeratan geratzen da ordainketa?**

GLEAK errekerimenduak egingo dizkie betiere txostena aurkeztu duten erakundeei, ordainketak tramitatzeko eta erakundeei likidezia emateko helburuarekin. Ezin bazaio errekerimenduari erantzun, ezin izango da ordainketa egin. Errekerimenduari erantzundakoan soilik egingo dira ordainketak, eta aplikatzekoa den dirulaguntza-araudian ezarritako baldintzak betetzen direnean.

- 18. Alarma-egoerak irauten duen aldirian nahitaez bidali behar dut nire proiektuaren azken txostena?**

Erakundeak proiektuaren inolako etenaldirik eskatu ez duen kasuetan, eta azken txostena martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean dagoen denboran aurkeztu behar

bazuen, Errege Dekretuak indarraldian egoteari utzi eta administrazio-epeen zenbaketa berriz hasten denean aurkeztu beharko du azken txostena. Kasu horretan, deklarazio horretatik aurrera geratuko litzaizkiokeen epe-egunak izango lituzke azken txostena aurkezteko.

Erakundeak proiektuaren edo bere jardueren baten erabateko etenaldia eskatu duen kasuetan, etenaldiaren ondoren berriz hasitako proiektuaren edo jardueren egikaritzapena amaitzen den dataren ondorengo sei hilabeteetan aurkeztu beharko du azken txostena.

Erakundeak proiektuaren etenaldirik eskatzen ez duen kasuetan, proiektuaren egikaritzapena amaitu eta sei hilabete ondoren aurkeztu beharko du azken txostena.

**19. Alarma-egoerak irauten duen aldian GLEAk ebatzi ditzake funtsezko aldaketako eskaerak?**

Bai. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia aurrera egiten ari da funtsezko eskaera guztien tramitazioan, COVIDek erangindakoetan zein jatorria krisi sanitarioan ez dutenetan.